



# DOINU XUME BAT

## (CHOPIN-EN SEI PRELUDIO)

Karlos ZABALA

XXIII.

Penintsulako itsasontzia portuan dago.

Bi marinel zahar jeisten diren bidaiarei so daude, urruntasun urdinera ohitutako begiradez.

Atzerritar bikote bat eskaileratxoan behera doa, atzean andrearen semea eta alaba, eta lauak ekipaien esperoan gelditzen dira, kaien giro bizian. Ekipaiak datozenean, gazte batek igo eta eskupekoa sakeleratu du. Atzerritarrak zaldigurdian urruntzen dira.

Bideko hautsean galdu arte arrantzaleak ikusmenez jarraitzen zaizkie.

Palmako mirtoen artean atseden hartzeko asmoz etorri dira, Pariseko zarata eta nekeei ihesik.

XI.

Mendizabalek aholkaturik etorri dira Mallorkara, lasaitasun eta eguraldi onaren bila, 1883. urteko neguan.

Lehen egunetan bititza miresgarria iruditzen zaie, eguzkia, beroa, olibondoak, zedroak, laranjondoak. Bakartasuna eta poesia. Xarmangarria.

“Bach, nire ziriborroak... isiltasuna; garrasi egin daiteke...; are isiltasun gehiago... Inork ez dit entztuten”. Idatzi du Frédéric.

Orain, konposizioa bukatu du, eta lehen egunetako bozkario bera da nagusi bere gogoan, gorputzeko minak ahaztera iristen delarik.

Egitan gutxitan sentitu da honen zoriontsu, eta iragankorra dela jakiteak balioa haunditzen du, segundoak ihesik joaten ez utzirik. Zoriontasunean murgiltzen da, bustitzen da, besarkatzen du.

## VII.

“Eta duela mende t’erdiko kontuak dira” pentsatuko du Valldemosako kartuxara hurbilduko den turista musikazaleak, udako oporretan, egun batez, hondartza eta diskotekatik urrundu nahian Chopin eta George Sand-en habia eta, noizbehinka, kaiola ere den gaztelu zahar honetara etorririk.

Nahiz eta honenbeste short, bikini, sandalia eta argazkikamararen artean zaila gertatu, orduko giroaz jabetu nahiko du, eta inondik etorriko ez diren nota soil batzuk, monotonoak bezain bihotz-urdirigarriak, entzungo ditu, eta notek aintzinako gertaerak oroitaraziko dituzte, aintzinako gertaerak eta haien protagonista hilak ere.

Inguruko txangokideei begiratuko die, zuzenean galdezera ausartu ez, eta deus ere sumatu ez dutela dirudike; harriturik berriro entzuteko lotuko da, baina lagunaren irazkin sinpleak besterik ezin izango du aditu oraingo honetan.

## IX.

Bost mende aurrerago, Mallorkako Santxo erregeak agindurik Valldemosako gaztelua eraikitzen ari zirenean, agure eskultore bat bazen klaustroko kapitela zizelkatzeko betebeharra zuena. Agure honek plano zahar batzuk bazeuzkan gorderik, non klaustro erromaniko bateko kapitela agertzen bait ziren; hauek herensugez, eskorpioez, paumez, uztarriez, erpin zanpatutako triangeluez eta aizkora bikoitzez beterik zeuden, asketa, ehiztari, aingeru eta sendagileen aldamenean, eta su, aire, lur, ur eta hauen arteko nahasketen sinboloak ere nonahi azaltzen ziren, aurrekoen artean tartekatuta; eta lan-maisuak zer zizelkatu behar zuen esaten zionean, berak, ugazaba urrundu ondoren, marrazki zimurtuetan begiratzen zuen eta beste irudi bat harririk nabarmentzen hasten zen.

Behin, igeltsari gazte bat, egiten zuenaz konturaturik, hurbildu zitzaion eta jokaera horren zergatia galdetu. “Marrazki hauek istorio bat kontatzen dute. Aintzinateko istorio bat, eta istorio honen hitzak musikaren notak dira; irudi bakoitzak melodia baten zatia da”. Eta estonaturiko mutilarentzat doinu xume bat abesteari ekin zion, ahots kraskatuaz.

Azkenean, arkitektoek gertaeraren berri izan zuten, eta jaramonik egiten ez zenez gero, eta, bestaldetik, eskultorerik onena galdu ez bait zuten nahi, planoak ebatsi eta desagertaraztea erabaki zuten.

Baina haren ohea hutsik aurkitu zuten.

Aurrerantzean, igeltsero gazteak soilik, inork ezagutzen ez zuen kantu bitxi bat abesten zuen, noizik behin.

## XVI.

Trumon-hotsen artean entzungaitza, ezkilaren joaldiak kartuxaren hitz gabeko eguratsa urratu zuen, XVII. mendeko ekaitz bortitz baten bihotzean.

Klaustroko korredorean barrena bi kartuxari zihoazen, sotana zuri apalez jantzita, buru estaliak makurtuta. Mundutik, deabruarengatik, haragitik urrundu nahi zuten, eta isiltasunaz, otoitzaz, lanaz, bakartasunaz betetzen zuten haien hutsunea.

Baraurik zeuden, ogiaz eta uraz beste ezertaz ez ziren elikatzen ari aste osoan.

Gelaxkaren batetik fraile batek txirula jotzen zuen, debekaturik zegoela jakinik ere. Soinua erekargarria zen, eta guztiz sinplea. Eta euri-zaparrada gainditu zuen.

Klaustroan zeuden bi kartuxari buruak altxatu zuten beren errezuetatik. Baratzean zegoenak kopetako izerdi lehortu eta aitzurrean euskarritu zen; zurgindegikoak mailua oholen gainean utzi zuen, sukaldarien begiei labea ahaztu zitzaizkien, ogia erretzeko arriskuan gelditzen zelarik. Elizan zeudenek ere otoitza eten zuten.

Abadeak, behingoan, txirulariaren ate hertsian deitu zuen, emeki, eta musika isildu egin zen, zeharkako mezua garbi ulertu bait zuen fraide berri musikazaleak.

Hala ere, aidean jarraitu zuen oihartzunak; uhin melodiasuen hedapena komentuko paret sendoek mugatu zuten.

## XXIV.

Tximistak gauaren zeru iluna zeharkatu du, bortizki, eta pixkanaka pixkanaka odei beltzen arteko oinaztargien zuria penintsularuntz erretiratzen da.

Azkenik gelditasuna.

Berunezko kriseiluaren garrak Frédéric erriaren ohea argitzen du. Ez da higitzen, mina areagotzeko beldurrez. Begitaratea zurbila du. Hamar urte barru horrela, jarrera berean egongo da, bere heriotz-ohean.

Eta orain bezala, orduan ere oroitzapenak oldartuko zaizkio buruan, eta guztien gainetik doinu xume, triste, soil, misteriozko bat ibiliko zaio ariman.

Maitasunez oroituko da. Konstanza politaz; orduan alargun eta itsu. Bihotzeko Mirenez, birikeriak bigarren senarra ebatsia. Georgez; beltzaran eta sendoa, ideietan aurrerakoa, zigarroa erretzen eta idazten ari delarik imaginatuko du. Elkarrengandik aldenduko direnetik Frédéric-ek ez du ia deus ere konposatuko.

Hiletsian egongo da, eta arreba nagusia etorriko zaio, eta aspaldiko adiskide abeslari bat bere kantuekin azken ordua eztiuzera.

Han, Pariseko etxe dotore batean, ohe inguruan agure kapitelizelkaria, kartuxari txirularia, turista musikazalea bilduko dira, iragan eta gero urrunetik etorrita, eta Frédéric-ek ez beste ikusi ahalko ditu. Eta lauen kantua abestuko dute. Bitartean Frédéric Chopin hil egingo da.

Hiletan Mozart-en Requiem-a, eta hilobiaren gainean lur poloniarrez betetako zilarrezko kopa botako dute.

Lehen, bihotza kenduko diote eta Poloniara eramango.

Heriotzearen berri izatean Schumann-ek hauxe esango du:

“Munduan barrena musika arima igaro da”.

Kartuxako kanpandoretik goizeko hiruen joaldi magikoa badoa, irlaren iluntasunean barneratuz, dagoeneko inork aditzen ez duela jakin nahi izan gabe.

